

1. SAIOA

BEHATOKIAK KULTURA-SISTEMAN DUEN ZEREGINA

Josean Urdangarin

Ramon Zallo

Euskal Kulturaren Behatokiaren ideia Kulturaren Euskal Plana egiteko prozesuan sortu zen. Kulturaren Euskal Kontseiluak 2004ko maiatzaren 21ean onartu zuen plan hori, eta Eusko Jaurlaritzak lau hilabete geroago.

Kulturaren Euskal Kontseilua eztabaida-organo instituzional eta sektoriala da, eta kulturaren arloko erakunde eta esparru guztiak daude hor ordezkaturak. Berrogeita hamar lagunek osatzen dute Kulturaren Euskal Kontseilua (batzuk erakundeetako ordezkariak dira, eta beste batzuk kultura-sailburuak izendatzen ditu). Urtean egiten diren bi saioez gain, erakunde arteko kultura-batzorde baten bidez funtzionatzen du. Batzorde horrek, batetik, administrazioen kultura-politika koordinatzen du eta, bestetik, kultura-sektoreekin hitz egiteko eta proposamenak lantzeko bidea irekitzen du. Aldi berean, kultura-sektoreek harreman egonkorra dute administrazioekin, lan-talde sektorialen bidez —talde bat dago sektore bakoitzeko—. Talde horietan, informazioa partekatu, proposamenak egin eta ekimenak edo arau-aldaketak erabakitzen dira.

1- Aurrekariak

Euskal Kultura Planak balantze orokor hau egin zuen azken hamarkadei buruz: 80ko hamarkadan, EAEko industria-birmoldaketa orokorra gertatu zen; 90ekoan, laguntza publikoari esker, ekoizpen-esparru berriak sortu ziren, eta teknologiaren eta telekomunikazioen aldeko apustu garbia egin zen. Beraz, bilakaera hori izanik, mende berriaren lehenengo hamarkadak *ezagutzaren eta kulturaren hamarkada* izan behar zuen, informazio eta komunikazioa lehengai gisa erabilita.

Hala, KEPean zehaztutako 10 ardatz estrategikoetatik, informazioa 2. ardatz bihurtu zen 2004-2015 epealdirako, planean definitutako helburu honek erakusten duen bezala: "EAEko kulturaren egoerari eta bilakaerari buruzko informazio-sistema zehaztea eta segimendu sistematikoa egitea, eta plan estrategiko sektorialak eta egoerari buruzko azterketak egitea". Planaren "Antolaketari buruzko alderdiak" atalean, berriz, Kulturaren Behatoki bat aipatzen zen egiturazko organoen artean (3.3.1.).

Behatokiari buruz, hau proposatzen zuen KEPak:

"Oraindik urrun gaude kulturari eta kultura-sektoreei buruzko informazio erregularra eta egiturazko informazioa edukitzetik. Sektoreek egindako ekarpenetatik, bi lehentasun ondorioztatzen dira:

- *Euskal Kulturaren Behatokiaren beharra, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, udalen eta Eustat-en arteko zerbitzu koordinatu gisa, informazioaren fluxu erregularra eta erkagarria ziurtatuko duena.*

— *Informazio-defizit handia duten arloei buruzko azterketak —katalogoak, mapak, inbentarioak edo liburu zuriak, kasuaren arabera— egiteko beharra.*

Horrekin batera, Planararen beraren aplikazioaren eta emaitzen segimendua eta ebaluazioa egin beharko litzateke.”

Hain zuzen, 2. ardatz estrategikoko 1. jarduera-lerroaren barruan jasotzen da proposamen hori —“Kulturaren Euskal Behatokiaren sorrera bultzatzea”—, eta Planaren lehenetsuneko ekintzetako bat dela azpimarratzen da.

Kulturaren Euskal Planak erakunde egituratzaile gisa definitzen du Behatokia, “*informazioaren eta ezagutzaren bidez, Euskal Kulturaren Sistema guztia elikatuko duena*”, eta lau funtzio hauek bete behar lituzkeela dio:

- euskal administrazioen arteko informazio-zerbitzu koordinatua izatea;
- berariazko azterketak egingo dituen kabinetea izatea;
- Planaren segimendu- eta ebaluazio-tresna izatea;
- eta eztabaida orokorrerako eta lan-taldeen arteko eztabaidarako tresna izatea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gauzatu du ideia hori, eta erakunde hauek ere parte hartu dute: hiru foru-aldundiak (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia), hiru hiriburuak (Gasteiz, Bilbo eta Donostia) eta EUDEL (Euskadiko Udalen Sarea), EUSTATEN aholkularitzarekin eta kontratatutako enpresaren laguntzarekin (ABEE edo aldi baterako enpresa-elkartea: AIC-ICC- Ikertalde), zeinek Behatokia abian jartzeko ardura duten.

2- Behatoki-kontzeptua

Kultura-errealitate jakin bat, errealitate hori osatzen sektoreak eta eskari sozialak aztertzeko tresnak dira kultura-behatokiak. Behatoki guztiek informazioa emateko, ingurunea aztertzeko eta ezagutza sortzeko funtzioa dute, eta kultura-politikek gizartean eta kulturaren duten inpaktua aztertzen dute.

Erakunde horiek heltzen direnean, informazioa jaso, landu eta zabaltzeaz gain, beste zeregin batzuk ere izan ditzakete: datuen azterketa kuantitatibo eta kualitatiboak egitea, aldizkako ikerketak egitea (sektoreka edo gaika), eta, kasu batzuetan —eta txostenetan oinarrituta—, kultura-politikak hobetzeko proposamenak eta hausnarketak egitea.

Beraz, zeharka bada ere, politika instituzionalen barruan, kultura-politikaren zentralitatea bermatzea da behatokiaren helburua, informazioaren, ikasketaren, kulturaren eta ezagutzaren garaiari dagokion bezala. Halaber, gizarte-erlaketarako, hazkunde ekonomikorako edo *gobernetzeko* prozesuetan kulturari balioa ematen laguntzean datza behatokiaren lana.

Ikuspegi ebolutibo horretatik, hauek dira behatoki ororen egiteko orokorretako batzuk:

- Kultura-sektorea beste jarduera-sektore batzuekin homologatzea, datuen sendotasunari eta zorrotasunari eta informazio fidagarri eta integratua erraz eskuratzeari dagokienez.

- Lurraldearen eta denboraren ikuspegitik, kulturaren joerak hobeto ulertzen laguntzea.
- Kulturak ekonomiaren hazkundera eta bizi-kalitatean duen egitekoa zehaztea, baita ekonomiako beste sektore batzuekin edo berrikuntzarekin eta sormenarekin dituen harremanak ere.
- Eragileei kulturari buruzko ikuspegi estrategikoa eskaintzea, unean uneko egoeraz haratago.
- Kultura-politikari buruzko hausnarketa sakontzea eta zentralitate handiagoa ematea.

3- Beharrak eta helburuak

Kulturaren Euskal Behatokia **gabezia eta behar** batzuetatik sortu da:

- a) kulturaren arloko informazioaren kalitate eta kantitate eskasa;
 - b) informazioa jasotzeko metodo estandar bat zehazteko beharra, konparazioak egiteko eta erabakiak hartzeko;
 - c) sektorea ezagutzen duen erakunde baten beharra, eguneroko kudeaketak sortzen dituen beharretatik haratago, kulturaren errealitatea aztertzeko;
- kulturari buruzko azterketan eta hausnarketan elementu objektiboak barneratzearen garrantzia.

Gure kasuan, Euskal Kulturaren Behatokia **helburu bikoitz** honekin sortu zen:

- Informazio kontrastatua, sistematikoa, eguneratua, berritzailea, erreferentea, ez-erredundantea, denboran sekuentziatua eta eragile publiko eta pribatu guztiekin partekatutakoa eskuratzea. Horretarako, iturrietarako sarbidea landu behar da, eta ezaugarri hauek dituen lankidetzaren sare bat sortu: erabilgarria, eragileek positibotzat daukatena, beste sistema informatiko batzuekin erkagarria, erabiltzaileen arabera sarbide aldagarria duena, gauzatze mailakatua eta joerak detektatzeko, eztabaida egokiak sortzeko eta aldaketetara egokitzeko balio duena. Horren bidez, eragileek ahalik eta modu fidagarrienean erabakiak hartzea eta administrazioek beren politikak jakinaren gainean definitzea lortu nahi da.

-Lehenengo aldiz, euskal kulturari buruzko informazio-sistema antolatua edukitzea —euskal kultura zentzu zabalean ulertuta—, haren segimendua egiteko eta bilakaera orokorra ezagutzeko eta, esparru globalean, sektore bakoitza eta sektore bakoitzeko eragileak eta aldaketak ezagutzeko, eta, hala, kultura-sistema elikatzen joateko. EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak lantzen duen esparruaren osagarri gisa ere beharrezkoa da.

4- Kultura-sektoreekin dituen loturen definizio kontzeptuala eta funtzioa

Gure Behatokia definitzeko, hausnarketa **sakona** egin behar izan da kontzeptuari, funtzioei, helburuei eta eragileen eta gizartearen arteko harremanari buruz.

Gizartearen, eragileen eta administrazioaren ispilu dimentsioaniztuna izatea da Behatokiaren rol orokorra. Baina, aldi berean, kanpora begira ere egiten du lan, bereziki beste zenbait behatokirekin lankidetzan arituz. Behatokia ez dugu informazio estatistikoa biltzeko eta sistematizatzen tresna gisa soilik ikusten, baizik eta kulturari buruzko azterketa orokorrak egiteko eta ikerketa sektorialak edo zeharkako ikerketak egiteko tresna gisa ere. Azken alderdi horri dagokionez, nabarmentzekoa da euskararen sorkuntzari eta erabilerari egin beharreko segimendua, funtsezko rola baitu euskal kulturari.

Hala ere, guretzat Behatokia ez da gailu tekniko hutsa, kultura-proiektu zabalagoa baizik. Tresna horretan, informazio-sistema eragile aktiboa, parte-hartzailea eta hausnarketa-sortzailea da, eta aztertu beharreko errealitatean bertan inplikaturik dago.

Behatokiak sektoreekin sortu beharreko lotura sektore horietako elkarrekin bidez landuko da, baina, azken batean, eragileek beraiek ikusi behar dute beren ekarpena baliagarria dela. Hala, sektoreetako eragileak, funtsezko informatzaileak eta Behatokiak sortutako informazioaren eta ezagutzaren onuradunak/erabiltzaileak dira, aldi berean.

Kulturaren Euskal Behatokia erreferentziazko erakundea da, eta **funtzio** bikoitz hau du:

- batetik, kulturari buruzko informazioa ordenatu, baliozkotu eta sortzea;
 - eta, bestetik, kulturarekin —kultura zentzu zabalenean hartuta— lotutako alderdi orokorrak, sektorialak edo lurraldearen araberrak aztertzea. Horrez gain, euskal kultura-sistemaren I+G+b lerroak formulatu eta egokitu behar ditu Behatokiak.
- Beraz, integrala izan nahi duen eredu baten aurrean gaude, baina dimentsio horietara guztietara iristeko denbora beharko du.

4.1. Egitekoak

Behatokiak hainbat **egiteko** izango ditu:

- lurraldearen eta denboraren ikuspegitik, gure kulturaren berezitasuna azpimarratzea mundu plural eta global batean, eta mundu horri laguntzea bere profilen bidez;
- kulturaren arloko etorkizuneko joerak detektatzea;
- kulturaren aberastasun, eraikuntza eta etengabeko eguneratzearen aldeko apustua egitea, gure sortzaile, enpresa, eragile eta kultura-maileguen laguntzaz;
- kultura sortzeko zein erabiltzeko prozesuan parte-hartzea bermatzea, komunitate zabal batek informazio fidagarria eta integratua izan dezan eta barneko integrazio-prozesuak eta kanpoko elkarrizketak berdintasun-baldintzetan egin daitezzen;
- kultura-sektoreari buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatiboaren bidez — eta datuen zorrotzasunaren bidez—, beste sektore batzuk prestatzea eta homologatzea, eta kulturari bizitza sozialean zentralitatea lortzen laguntzea;

-barne eta kanpo harremanen sare baten sorrera bultzatzea, informazioaren kalitatea eta zorroztasuna bermatu eta bere potentziala optimizatuko duena, beste kultura eta behatoki batzuekin sareko harremanak izaten laguntzeko.

- dimentsio anitzeko ikuspegitik, kulturaren ikuspegi estrategikoa eta kultura-politikari buruzko hausnarketa eskaintzea, euskal kultura-politikaren formulazioari, gauzatzeari eta ebaluazioari koherentzia handiagoa emateko eta kulturak politika publikoetan gero eta zentralitate handiagoa lortzeko.

4.2. Esparruak

Behatokiak ezagutza integrala jasotzeko bokazioa duenez, kulturaren arlo tradizional guztiak barne hartzen ditu: ondarea eta ondarearen erabilerak, kultura-industriak, komunikabideak eta adierazpen artistikoak. Horrek esan nahi du taxonomia zorrotz, erabilgarri eta parekagarrian sakondu behar dela, baina, aldi berean, komunikazio globalek sortutako zeharkako adierazpen osagarri eta berriei ateak ireki behar zaizkiela.

Behatokiaren **oinarrizko esparruak** kulturaren sektore tradizionalak dira:

- Kultura-ondarea (arkeologikoa, arkitektonikoa, etnografikoa, industrialak, museoak, liburutegiak, artxibategiak).
- Sorkuntza eta adierazpen artistikoa (antzerkia, musika, dantza, literatura, arte plastikoak).
- Kultura-industriak (argitalpen-industria, fonografikoa, ikus-entzunezkoa, multimedia, kultura digitala, artisau-industriak eta komunikabideak).

Behatokiaren lana ez da soilik azterketa orokorra edo sektoriala egitea. Horrez gain, bi esparru hauetan segimendua egiten du: a) Kulturaren balio-kateen edo -faseen segimendua, sortzen denetik azken erabilerara arte (prestakuntza edo sorkuntza, ekoizpena, banaketa eta zabalkundea); b) kulturaren arloko zeharkako gaien segimendua: horien artean, azpimarratu behar da euskararen segimendua, kultura-ekoizpenerako eta -praktikarako berezko hizkuntza gisa, kulturaren arloko eragileen portaerak ezagutzea (gizartea edo publikoak, eskaintzak egiten dituzten eragileak eta administrazioak), eta, bereziki, kulturaren arloko portaerak eta ohiturak ezagutzea, gizarteak nola jasotzen dituen eta gizartean zer aldaketa gertatzen diren ikusteko.

Kulturari buruzko informazio estatistikorako eta euskal esparru kultural eta komunikatiboa aztertzeko ekimen publikoa da. Behatokiaren eskualde-nazio mailako esparrua Euskal Autonomia Erkidegoan oinarritzen da —non Eusko Jaurlaritza den eskuduna—, baina Euskal Herri edo Baskonia guztiko informazioa ere bildu nahi du, alegia, baita Nafarroakoa eta Ipar Euskal Herrikoa ere.

5. Hartzaileak eta zerbitzuak.

5.1. Hartzailleak

Hauek dira Behatokiak eskaintzen dituen informazio-maila desberdinen hartzailleak, interes-esparruaren arabera banatuta:

Erakunde nagusiak

Behatokiak kudeaketa publikorako eta politikak aldaketetara egokitzeko tresna bat eskaintzen die. Halaber, erakunde horiek azterketa, txosten edo datu-bilketa zehatzak eska ditzakete, aurreikusitakoez aparte.

Kultura-sektoreak

Kultura-sektoreek —eragile publikoak (ondarea, erakundeak...) edo pribatuak (sektoreetako enpresak edo balio-kateko maila desberdinak eta kulturaren sorkuntza-, ekoizpen- edo zabalkunde-prozesuan nola edo hala parte hartzen duten erakunde laguntzaileak)— Behatokiak eskaintako informazio-korpora aprobetxa dezakete bere erabakiak edo negozio-planak txosten edo azterketetan deskribatutako errealitatera egokitzeko, jarduera-estrategiak birdefinitzeko...

Komunitate zientifikoa

Behatokiak balio gehigarri handiko informazio sistematizatu eta ezagutza kopuru handia eskaintzen dio. Informazio hori beren ikerketa kuantitatibo edo kualitatiboetan erabil dezake, eta, halaber, zubi gisara, ikerketa-taldeekin akordioak egiteko eta esparru jakin batzuetan sakontzeko (unibertsitatearen edo Behatokiaren beraren ekimenez).

Herritarrek

Behatokia baliagarria izan daiteke herritarrentzat ere, kulturari buruzko informazioa jasotzeko interesa duen edo kultura kontsumitzen duen subjektu publiko gisa.

5.2. Zerbitzuak

Behatokiaren jarduera-lerroak garatzeak zerbitzu jakin batzuk martxan jarri eta produktu jakin batzuk sortzea eskatuko du. Zerbitzu eta produktu horien lehenengo katalogoa honelakoa izan daiteke:

- Informazio estatistikoko sistemaren eguneratzeak aldizka argitaratzea. **Hileko buletinaren** eta Behatokiaren **web gunearen** bidez egingo da argitalpen hori.
- Egindako azterketa eta ikerketa estrategikoei buruzko **liburuak** argitaratzea.
- **Informazioa neurrira bilatzeko zerbitzua.** *Informazio-mapari* buruz duen ezagutza zabala baliatuz, Behatokiak bilaketa-zerbitzu berezituak eskain ditzake, nagusiek edo beste erabiltzaile batzuek eskatuta.
- **Aholkularitza-zerbitzua.** Behatokiak aholkularitza- eta orientabide-zerbitzua eman dezake definitutako hainbat esparrutako jarduera-estrategiei buruz (egitekoa, jarduerak, kultura-praktikak...). Zerbitzu hori hartzaille guztiek erabil dezakete.

- **Prestakuntza espezializatuko ikastaroak eta topaketa eta jardunaldien antolaketa.** Dagokion jarduera-lerroaren barruan, ikastaroak, topaketak eta jarduerak antola daitezke, arlo jakin horretako arduradun politikoak, adituak, ordezkari sektorialak... biltzeko eta ezagutzak partekatzeko eta sortzeko espazio bat eskaintzeko.

Hausnarketa horiek guztiak oinarri gisa hartuta, kulturaren esparru estatistiko propio bat sortzen ari gara. Esparru horrek oinarritzko adierazleak ditu jakintzarako eta konparaketak egiteko, eta, aldi berean, jakintza sortzeko eta zabaltzeko.

6. Progresibitatea.

Hasieran, ezinezkoa izango da deskribatutako zerbitzu eta jarduera guztiak martxan jartzea. Hala, Behatokiak fasekako hurbilketa mailakatua egin beharko du guztiak martxan jartzeko. Lehenengo hiru urteetan beharrezkoa da oinarri ona jartzea, Behatokiaren jardueraren erdigunean dauden ekimenen bidez. Handik aurrera, eredia finkatzen eta lehenengo fasean aipatu bakarrik egin diren funtzioak garatzen hasi ahalko da. Hasiera-hasieratik Behatokiaren izaera estrategikoari eustek garrantzia du, egoeraren arabera beharrek sor ditzaketen jardueretan galtzeko arriskurik ez izateko edo, lehenengo fasean lor ezin daitezkeen helburuak ezartzearen eraginez, Behatokia bere bidetik ez desbideratzeko.

Eztabaidarako zenbait gai

- 1- Behatoki bakoitzaren testuingurua kontuan izanik, zer premia, helburu eta eginkizun ditu zureak?
- 2- Zure iritziz, falta da eginkizun edo lan-eremu estrategikoren bat Kulturaren Euskal Behatokiak aurkeztutako planteamenduan?
- 3- Nola uztartzen dituzue Behatokiko erakunde nagusien premiak eta zuen berariazko interesak?
- 4- Zer politika hedatzen duzue kulturako sektoreetara eta komunitate zientifikora, informazio-jasotzaile ez ezik sustapen-eragile ere izan daitezen?
- 5- Zer ondorio azpimarratuko zenituzke zure behatokiaren jardueratik martxan daramatzen hiru urte hauetan?